

EBANJELIOAREN INDARRA ASKATU

1. Transmisio erako pastoralaren krisia

2. Pastoralgintzarako era berrien bila

- Harrerako pastoralala
- Fede-proposameneko pastoralala
- Elkarrizketako pastoralala

3. Ebanjelioaren indar salbatzailea berreskuratu

- Ebanjelioa, krisi erlijiosoaren atzaparretan
- Ebanjelioaren indarra lehenengo elkarteetan
- Ebanjelioaren indarra askatu

4. Ebanjelioa, nortasun kristau berriaren hasiera gisa

- Elkarrekin hartu Ebanjelioaren indar eraldatzailea
- Jesusek irekitako bideetik sartu
- Kristautasuna bizitzeko eratzat hartu
- Elkarrekin eliz nortasun berri batera berpiztu

Hogeita bat garren gizaldiaren hasieran, Joan Paulo Igarrenak, *Novo Millenio Ineunte* izeneko Idazki Apostolikoan hau zioen: «berpiztu aldi pastoral zoragarria datorkigu»¹. Aita Santuaren arabera, lehenengo ebanjelizatzearen iturrietara itzuli behar dugu «hasierako indar hura gure baitan biziberritzeko»². Aita Santuak espero du ebanjelizatze berriaren sugarrak «misiolari izatera bultzako duela berriz ere Eliza eta ekimen hori ez dela ‘aditu’ bakan batzuen esku uzterik egongo; alderantziz, azkenean Jainkoaren Herriko kide guztiek heldu beharko diotela erantzukizun horri»³.

Garai hauetan, gizartean eta kulturen sekulako aldaketa ari da gertatzen, aurrekaririk gabekoa. Aldi honetan Paulo VIgarrenak zioena datorkigu gogora: ebanjelizatze-lana, «Elizaren funtsezko zerbitzua da... Ebanjelizatzea Elizaren zoriona eta berezko bokazioa da, barru-barruko izaera edo nortasun sakonena. Eliza ebanjelizatzeke da»⁴. Baina aldaketak sakonak eta azkarrak dira, oso sakonak eta oso azkarrak; eta jada ezin

¹ Juan Paulo II, *Novo Millenio Ineunte*, 29.zenb.

² Idem, 40.zenb.

³ Ibidem

⁴ Paulo VI, *Evangelii Nuntiandi*, 14.zenb.

dugu garai bateko eskema eta planteamenduen bidez ebanjelizatu, izan ere jarduera horiek betiko amaitzen ari den testuinguru kultural batekoak baitira. Egin behar duguna zera da: bila hasi, apaltasunez eta uste onez. Egin behar duguna da ebanjelizatzen ikasi, Elizak orain arte ezagutu ez duen egoeran eta sortzen ari den gizarte berrian. Inork ez dauka errezeta magikorik. Inork ez daki ziur zer egin behar den. Urte askoan ibili beharko gara bila. Denbora askoan saiatu beharko gara. Bilaketa-giro honetan hartu behar da nire ekarpen xumea.

Gaur egun ari dira ebanjelizatze-eredu batzuk lantzen. Baina ni ez nator ebanjelizatze bide zehatz bat proposatzera. Nire helburua da azaltzea, Ebanjelioak «estatus» berri bat behar duela Eliza barruan eta ebanjelizatze jardueraren paradigma berri bat. Honen ardatzak izango lirateke: batetik, Jesus berreskuratzea, Jesus Jauna berreskuratzea, «*gure fedearen iturburu*»⁵ gisa, bera baita gaurko gizarte honetan fedea erne arazteko gai den bakarra; bestetik, Ebanjelioak daukan indar askatzailea eta gizatiartzailea askatzea; hirugarren, gaur egungo gizon-emakumeei harreman-bide hurbil eta zuzena irekitzea Ebanjelioko kontarekin; azkenik, Jainkoaren

⁵ Hebrearrei 12, 2

Herriko kide guztien erantzukizuna eragitea eginkizun hau betetzeko: Jesusen Ebanjelioaren inguruan elkartuko diren taldetxoak sortu eta garatzea.

1. Transmisio erako pastoralaren krisia

Esan daiteke gaur egun gure artean bultzatzen diren pastorgintzako eredu nagusiak, bosgarren eta seigarren gizaldi aldera osatuz joan zen eredu tradizional batean oinarrituz garatu direla eta Letrango IV. Kontziliotik aurrera sendotu zela (1215). Oparoa izan da benetan eredu hori. Modernitate aurreko gizarteko kristauen fedeari arnas eman eta eutsi dion eredu da, modernitatearen krisialdia iritsi arte⁶.

Mendez mende Elizaren eginkizun nagusia zera izan da: fedea, iraganetik jasotako herentzia gisara transmititzea. Pastoral hau egoki txertatzen zen gizarte hartan, izan ere orduko kulturaren arabera, sinesteak, balioak eta jokaerak berezko eran eta ia zuzen-zuzenean igarotzen ziren belaunaldiz belaunaldi. Aurreko kristauen

⁶ Philippe Bacq-Christoph Theobald (Eds). *Una nueva oportunidad para el Evangelio. Hacia una pastoral de engendramiento*. Bilbao, Desclée de Brower, 11-14

pentsaerak, jarrerak eta jokaerak bereganatuz egiten zen pertsona bat kristau. Testuinguru sozial eta kultural honetan, Elizaren eginkizun nagusia hau da: doktrina, morala, sakramentuak eta debozioak, otoitza eta Elizaren diziiplina zuzen transmititzea.

Transmisio-pastoral hau «sailkapen-pastoral» da, izan ere kristaua parrokiaren eremu zehatzean sailkatzen baitu, bere bizitza erlijiosoaren ibilbidea jaiotzatik hasi (bataioa) eta heriotzaraino (azken oliadura) finkatuz. Pastoral honen zutabeak apaiza, parrokia eta sakramentuak dira. Bizitza kristauaren joan-etorria igandeko mezaren eta, tarteka, aitortzako sakramentuaren inguruan egiten da. Apaizak, parroki-elizaren ondoan bizi dena, parrokiaren batasuna bermatzen du bere autoritateaz: eliztarrak deitzen ditu; haientzat meza eta sakramentuak ospatzen ditu; doktrina kristaua hots egin eta erakusten du eta Elizaren aginduak bete daitezen zaintzen du.

Pastoral hori, zortzi mendetan aldaketa handirik gabe garatu dena, gauza izan da Jesusen mugimenduari egonkortasun eta berdintasun handia emateko. Erlijio

bihurtu du mugimendu hori, eta kultu-gune bateko lurralde batean bizi izan da. Hor, kristauek, bataiatuen erroldan izen emanda, «kristandadeko gizarte» bat osatzen dute. Pastoral hau zilegi da. Ez zilegi bakarrik baizik eta, egitez, Jesusen oroitzapena gureganaino gorde eta helarazi duen pastoral izan da, eta Ebanjelioaren balio handiak piztu eta eragin ditu kristau herrian.

Gaur egun, ordea, transmisio erako pastoral hau gero eta ezinezkoagoa bilakatzen ari da. Hobe dugu Elizan lehenbailehen jabetu, fedea transmititzeko molde zehatz horrek ez duela balioko etorkizunean. Joan ziren gizarte estatikoaren garaiak, atzean utzi dugu gizarte tradizional eta homogeneoa, eta buru-belarri murgildu gara gizarte dinamikoan. Gure gizartearen ezaugarrietako bat da eten gabe aldatzen ari dela. Belaunaldi berriak ez dira bizi atzokoari begira baizik etzikoari erne. Etorkizunari, berriari, sortzen ari denari jartzen diote arreta oraingo belaunaldiek. Gazteek ez dute bizitzen ikasten beren arbasoei begiratzuz baizik oraingo kulturak, bilakaera betean, eskaintzen dizkien esperientzia berrietatik edanez.

Gertaera honek ondorio larriak ditu. Aurrekoen nortasun kristaua kopiatu hutsarekin, jai du fedearen transmisioak; belaunaldi berriek ez dute ikasiko kristau izaten gurasoak, apaizak edo katekistak imitatuz. Beste bide batzuk urratu beharko dituzte Jesu Kristoren berezkotasuna eta indar salbatzailea deskubrituko badituzte; fedea pentsatzeko, esateko, adierazteko edota ospatzeko erak ezingo dira beren gurasoen edo aitona-amonenak berberak izan. Hau da, transmisio-pastoralak ezin du izan betiereko eredia, etorkizuneko gizartearen jarduera ebanjelizatzaileari arnasa emango eta argi egingo diona.

2. Pastoralgintzarako era berrien bila

Urte gutxian gero eta gizarte sekulartuago eta anitzago batera igaro gara, azkar igaro ere era askoko alderdiengatik. Gizarte honetan erraza da fede-krisia antzematea, igandeko ospakizunetik aldenduta bizi da jendea, bataioak doitzen ari dira, apaizak bakanduta daude, kristau elkarteak zahartuta eta parrokiak ahul oso, pastoralgintzarako. Horregatik, azken urteotan, pastoral

eta ebanjelizatze jarduera berrien bilaketa ari da gertatzen⁷. Hiru ildo besterik ez ditut aletuko, bilaketa honi argi egiten ari baitzaizkio.

- *Harrerako pastoralak*

Vatikanoko II. Kontzilioak sortutako giro berritzailean, azkar asko planteatu ziren funtsezko hainbat auzi: zer da, izan ere, fedea transmititzea? Transmititzen ari garena Jesu Kristorekin bat egite bizia al da ala gizarteko ohitura bat, gizartea zenbat eta sekulartuago orduan eta desagertuago geratzen ari dena? Ez al da igaro behar fede soziologiko batetik fede pertsonalizatuago eta arduratsuago batera? Ez al da beharrezkoa gizon-emakumeen bizitzari eta konpromisoari gehiago helduko dion fedea sortzea?

Planteamendu horietatik etorri da *harrerako pastoralak*, erneagoa bateko eta besteko behar eta egoeretarako, eta zabalagoa, deskristautzen ari den gizarteko pertsonari egokiago erantzuteko. Hala, ugalduegin dira azken urteotan kristau-sarbiderako hainbat

⁷ Idem, 14-23

prozesu, baita ere helduen katekesia, familientzako katekesia, eta gazteen sendotza prestatzeko ekimenak.

Harrerako jarrera honek on egin du. Mesederako izan da fedearen ohiko transmisioa eraberritzeko. Hona ezaugarri nabarmen batzuk: apaizak askoz gehiago hurbildu dira laikoengana, erantzukizunak konpartitzeko jarreraz, harremanerako eta elkarlanerako asmoz; taldeen eskaerak egokiago hartu dira aintzat; aniztasun erlijiosoari begirune handiagoa izan zaio; pertsonen harrera gehiago zaindu da, bakoitzaren fede-egoera zertan den kontuan hartuz...

Nolanahi ere, doi-doi lortu da nahi zen funtsezko helburua: parrokiak, gero eta gehiago, benetako kristau elkarte bilakatzea, sekularizatutako giroetatik datozen pertsonak hartzeko kapaz eta federako sarbidea eskaintzeko gai. Gilles Routhier pastorgile ezaguna da Kanadan eta berak dio, Quebecen hirurogeita hamarreko hamarkada ezkerreko alde honetan egindako ahalegin guztiak, ia alferrik izan direla. Gure artean, emaitzarik onena, agian, honako hau dugu: hainbat kristau talderen

sorrera, izaera eta ibilbide desberdinekoak, eta hedadura ebanjeliko gutxikoak.

- *Fede-proposameneko pastoralala*

Bien bitartean, ohiko kristautasuna ahituz joan den neurrian, zailtasun eta arazo berriak azaldu dira parrokien eguneroko bizitzan: gazte-jendeak, gehienez, utzi egin dio mezetara joateari; gero eta bakanagoak dira sakramentuak hartzera gerturatzen direnak (bataioa, sendotza, ezkontza...); apaizak eta pastoral-laguntzaileak zahartu egin dira...

Horrek guztiak beste galdera batzuk eragiten dizkigu. Zerbitzuren baten galdezka, parrokiara inguratzen direnak hartzea, nahikoa al da? Ez al da hau jarrera geldoegia, pasiboegia, gizartean, etxeetan eta kontzientzietan fedea nola ari den itzaltzen ikusten ari garen garairako? Hau aski al da, Jesusek bere ikasleei eman zien zeregin hura betetzeko, alegia, Jainkoaren Berri Ona hots egiteko eta bere erreinuari bideak zabaltzeko? Nahikoa al da

«iraupenean» edo «heriotza duinean» inspiratzen den pastoralala?

Urteotan oihartzun dezente izan du European Frantziako Gotzainen Batzarrak 1994ko azaroan egin zuen planteamenduak. Izenburu esanguratsua du: «*Gizarte berrian fedea proposatu*»⁸. Apezpiku frantziarren arabera, gure gizarte sekulartuan eta anitzean fedearen berri emateko beharrezkoa da beste era bateko pastorgintza bat ikastea. Iragan-mina eta proselitismo inozoak utzi eta fedea komunikatzeko beste era batera igaro beharra daukagu. Hona gotzain frantziarren oinarrizko aukera: «Guk baldintza berrietan hartu behar dugu Jainkoaren oparia eta, aldi berean, jatorrian izan zen ebanjelizatze-adierazpena topatu behar dugu berriro: Kristoren Ebanjelioaren proposamen erraza eta indartsua»⁹.

Jarrera-aldaketa hau oso garrantzitsua da. «Fedea eskaintzea» ez da bakarrik Elizara hurbiltzen direnen eskari erlijiosoei erantzutea. Horrez gain, fedea eskaintzea ekitea da; esan nahi du, kristau fedea aurkeztera ausartzea

⁸ *Proposer la foi dans la société nouvelle. Lettre aux catholiques de France.* Paris, Ed. du Cerf, 1997

⁹ o. c., 37

Jainkoaz gero eta axolagabeago eta ahaztuago bizi den gizartean. Baina, bestetik, fedea proposatzea ez da transmisiorako eredu tradizionalera itzultzea. Jean Rigal, Frantziako Tolosako Ikasketa Erlijiosoen Institutuko teologo eta pastorgilea, honela mintzo da «fedeproposamena» azaltzen duenean: «Kontua da proposatzea baina inposatu gabe, kontzientziak esnatzea baina menperatzeko asmorik gabe, zentzu baten lekukotasuna ematea baina denek onartuko dutenik espero gabe, kristau fedea hots egitea makina bat mezuren artean: “Zuk nahi baduzu”, esan ohi zuen Jesusek behin eta berriz. Gauza bera Elizak: bere egitekoa pertsonen askatasunaren eta kontzientziaren aldeko deia egitea da»¹⁰

Frantziako Gotzainen agiriak oso aldaketa ona dakar, zalantzarik gabe, ebanjelizatzeke jarrerarako. Elizak ez du inon eta inola eman behar erakunde inposatzailea, epaitzailea edo mehatxugilea denik, baitezpadako bere aginte sakratua tarteko; alderantziz, Eliza fede kristaua eskaintzen den askatasun-gune eta gonbidapen-lekutzat hartua izan behar da alde guztietan. Ildo honetan eman

¹⁰ Jean Rigal. *L'Eglise en chantier*. Paris, Ed. du Cerf, 1997, 76-77

zaio bidea fedeari Frantzian eta beste toki batzuetan, eta ekimenak egin dira urrutiratutako pertsonekin, katekumeno heldu batzuekin eta, batez ere, «recommençants» deitzen direnekin egindako lan handia, hasieran nagusiki Henry Bourgeoisek eraginda Lyonen, berriro fede kristaura atxiki nahirik dabiltzanei laguntzeko¹¹.

- *Elkarrizketako pastoralala*

Baina bilaketa etengabea da. Behin eta berriz sortzen dira galdera eta planteamendu berriak. Zalantzarik gabe, beharrezkoa da fedea gizarte berri honetan proposatzea, baina horrek ez al du eskatzen gaur egungo gizon-emakumeekin elkarrizketatzea? Nola liteke Jesu Kristoren Berri Ona proposatzea oraingo mundualdiaren galderak entzun gabe? Zer izan behar da Eliza? Bere egia besteei eskaintzera deitutako erakundea besterik ez? Ez al dauka besteei zer entzunik? Beste alde batetik, Jesu Kristoren Berri Ona entzuteko, ez al dugu guztiok egoera sozio-kultural berri honi adi jarri behar? Fedea

¹¹ Henry Bourgeois. *Los que vuelven a la fe*. Bilbao, Mensajero, 1995; «*À l'appel des recommençants. Evaluations et propositions*». Paris, L'Atelier, 2001. José Antonio Pagola. *Creer, ¿para qué? Conversaciones con alejados*. Madrid, PPC, 2008; *Escuchar a los alejados*. San Sebastián, Idatz, 2005.

proposatzen dutenek, ez al dute beraiek ere bihotz berritzeko deia entzun behar? Ez al du Elizak Jainkoaren deia entzun behar? Izan ere, gizarte honetatik ari zaigu Jainkoa guztioi deika eta hementxe ari da Jainkoa bere seme-alaba guztien barruan, lan eta lan.

Azken urte hauetan jabetuz joan gara guztiekin elkarrizketa gogoz egin behar duela beti Elizak, baina hitzetik ekintzara igaro behar izaten denean, apenas lortzen den bide berririk urratzea. Saiatu zen Paulo VIgarrena elkarrizketa eragiten *Ecclesiam suam* entziklika garrantzitsuan, baina ia alferrik. Hainbeste mendetan elkarrizketari bizkar eman zion pastoralgintza bultzatu eta gero, orain ez da erraza goizetik arratsera elkarrizketan ikastea. Nola bultzatu elkarrizketa, betiko estrategietan edo aukera interesatuetan erori gabe? Zeintzuekin hitz egin dezakegu? Zein giza gune daude gizarte honetan elkarrizketa egiteko modukoak? Zeri buruz elkarrizketatu? Zeren arabera?

Ezagutzen dudanaren arabera, urratsik garrantzitsuenak isilka egin dira baina eraginkorrak izan

dira sakramentuak prestatzeko pastorgintzan (bataiatuen gurasoak, ezkontzarako prestaketak...). Arlo horretan apaiz batzuek eta lankideek lortu dute parrokiara hurbiltzen direnekin senitarteko giroa sortzea eta elkarrizketa piztea, elkar entzuteko jarrera zabalaren bitartez. Egiten ari diren ahaleginak gorabehera, Elizan, neurri handian, eskaintza eta eskariaren arabera gabiltza oraindik: Elizan «eskaintza» bat daukagu, gizakiaren «eskari» sakonenei erantzuten diena. Eskema honek honelako planteamendu eta galderak eragiten ditu: Zergatik, gaurko gizon-emakumei ez zaie axola Elizaren eskaintza? Nola asma dezake Elizak bere eskaintza hobetzen eta erakargarriago bihurtzen? Azpi-azpiko auzia, ordea, beste bat da: planteamendu hau al da egokiena fedea sortarazteko?

3. Ebanjelioaren indar salbatzailea berreskuratu

Kristautasuna gure artean jasaten ari den krisiaren sintomarik larri eta begi-bistakoena, praktika erlijiosoaren beherakada geldiezina da. Azter daitezke gertaera honen iturburuan dauden bateko eta besteko eragileak. Gauza bat dago argi: Elizak galdu egin du bere erakarmena. Datu

honek galdera bat eginarazi behar digu, nahitaez: zertan jarraitu behar dugu, Eliza honetatik fedea *transmititzeko* bide bila huts-hutsik, ikusirik Elizari gaina hartu diola kultura sekularraren bilakaera azkarrak, gero eta gutxiago erakartzen duela, eta gero eta sinesgarritasun txikiagoa duela? Ala Jesusen Ebanjelioa lehenbailehen berreskuratu behar dugu, pentsatuz hura bakarrik dela kapaz *fedea ernearazteko* gizarte modernoaren barruan?¹²

- *Ebanjelioa, krisi erlijiosoaren atzaparretan*

Gaur egun kristau elkarte batera inguratzen direnek ez dute aurrez aurre topo egiten Jesusen Ebanjelioarekin. Antzematen dutena da gizaldiz gizaldi jardundako erlijioaren ibilia, ezagun duena krisian dagoela eta gainbeheran doala. Ebanjelioa ezkutatuta daukate hainbat jarduerak, ohiturak, deboziok eta formula erlijiosok, askori hain ulergaitzak eta onartezinak zaizkionak gaur egun. Erlijio horren barruan, ez dira gai Ebanjelioari Berri Onaren antzik hartzeko; alegia, Jesusek giza historian

¹² Paul Tihon. *Pour libérer l'Évangile*. Paris, Ed. du Cerf, 2009

eragindako zirraren ondorioz sortutako Ebanjelioa, ez dute Berri Onarekin lotzen erlijio horretan.

Elkarte horietan sartzen bagara, ikusiko dugu kristau asko, berez, erantzun bila dabilela beren behar erlijiosoentzako. Ez dirudi besterik behar dutenik. Gisa horretan, kristautasun horrek ez du Jesusen Ebanjelioaren arabera bizitzen ikasten ari diren «ikaslerik» sortarazten, erlijio baten jarraitzaileak baizik. Ez ditu Jesusen «jarraitzaileak» sortarazten, haren egitasmoarekin bat eginda, Jainkoaren erreinuari bide egitera emanak; alderantziz, erakunde erlijioso bateko kideak sortarazten ditu, ezarrita dagoena gutxi-asko betetzen dutenak.

Horietako makina batek seinale du ez daukala bizi-harremanik ez Ebanjelioarekin ez Jesusekin berarekin. Ez dute sumatu ere egiten ze aldaketa gertatuko litzatekeen beren baitan, Jesusek eta Ebanjelioak beren bizitzaren muina harrapatuko balute. Mendez mende datorren pastorgintzaren garapenarekin, azkenean zera gertatzen da: erlijio bateko doktrina, morala eta sakramentuak oinarri hartuta egituratzen duela ia beti kristauen fedea, ez

Jesu Kristo norberak aurkitu izanaren esperientziaren arabera. Hala ere, Benedikto XVI.ak esan bezala, «ez da hasten kristau izaten erabaki etiko batengatik edo burutapen handiren bat dela medio, baizik eta gertaera batekin topo egin delako, Pertsona batekin topo egin delako, bizitzari etorkizun berria ematen diona eta, beraz, argibide erabakigarria»¹³.

Zalantzarik gabe, gaur ere erlijio horren barruan ari da Jesus zentzua eta arnasa emanaz kultuari eta kristau horien jokaerari. Jesusi eta bere Ebanjelioari buruz hitz egiten da orain ere. Haren Mezua Jainkoaren Hitz gisa da aldarrikatua, nahiz eta gero, arreta predikariaren hitzei jarri. Gaur ere hitz egiten da «Jesusen eredia jarraitzeaz», haren «antzera jokatzeari», jaunartzekoan hura «hartzeaz». Baina, eskuarki, Jainkoaren herrian ez da lortzen Jesu Kristorekiko atxikipen bizia ezta ere ikasleei eta jarraitzaileei dagokien lotura.

Kristau on askok «bigarren eskutik» edo zehar bidetik ezagutzen du Ebanjelioa. Jesusi eta haren mezuari buruz dakiten guztia, predikatzaile eta katekisten hitzen

¹³ Benedikto XVI, *Deus Caritas est*, 1.zen.

bidez, nola edo hala osatu dutenetik datorkie. «Jesusen hitzekin» harreman zuzen eta hurbilik gabe bizi dute erlijioa. Ez zen hala izan lehenengo kristautentzat: Jesusen hitzak «arnasa eta bizia»¹⁴ ziren haientzat.

Hauxe da funtsezko datua. Krisian dagoen erlijioaren barruan mugatua, Ebanjelioaren bizi-indarra blokeatuta geratzen da, gaur egungo emakume eta gizonekin harremanean jartzeko biderik eta tokirik gabe. Erakarmena galdu duen tradizio kultural eta erlijioso baten barrutik hots egina, Ebanjelioa ez da gai bere indar gizatiartzailea eta salbatzailea zabaltzeko.

- *Ebanjelioaren indarra lehenengo elkarteetan*

Jesusen Ebanjelioa da lehenengo kristau elkarten sorburu, bizitza eta hazkundeko protagonista nagusia. Jesusen Berri Ona non entzuten eta onartzen den, han agertuko dira aurreneko elkarteak. Ebanjelioak ernarazten du fedea. Oso garrantzitsua da Pauloren, Pedroren edo Bernaberen jarduera, baina «Ebanjelioaren zerbitzariak»

¹⁴ Joan 6, 63

besterik ez dira. Gertaera erabakigarria Jesusen Berri Ona da.

Ebanjelio hori ez da doktrina bat, ezta ere filosofia bat, ez erlijio bat ere. Ebanjelioa Jesus da, Kristoa, haren mezua, bizitza, heriotza eta piztuera. Bera da Jainkoaren Berri Ona dakarrena eta bera, Berri Onaren mamia. Ebanjelizatzaileek Ebanjelioa leku batera ekartzen dutenean, Jainkoaren «indar salbagarria» sartzen ari dira toki hartan. Hauxe da Paulok sinesten duena: «Ez dut berri ona zabaltzeko lotsarik, Jainkoaren indarra (dynamis tou Zeou) baita fededun guztiak salbatzeko»¹⁵.

Hasierako kristau elkarteetako gertaera funtsezkoa Ebanjelioaren indar salbatzaile horren hedapena da, Hitzaren hazkundera, honen sarrera Inperioko lurraldeetan barrena. Honela dio Pauloren ikasleren batek 80. urte aldera idatzi zuen gutunak: «Berri onaren mezua, Jainkoaren onginahiaren berri izan eta egiaz ezagutu zenuten egunetik bertatik ari da zuen artean hazten eta fruitua ekartzen, mundu guztian ari den bezalaxe»¹⁶.

¹⁵ *Erm* 1, 16

¹⁶ *Kol* 1, 6

Ebanjelioa hazten eta fruitua ematen ari den leku dira elkarteak. Jesusen Ebanjelioa da fedea ernarazten ari dena. Garai bertsuan, honela dio Pedroren ondarea jasotzen duen idazki batek: «Berriro jaio zarete, eta ez hazi hilkorretik, hilezkorretik baizik, bizia den eta betiko dirauen Jainkoaren hitzetik... Hitz hau, berriz, zuei hots egin zaizuen Berri Ona da»¹⁷.

Kristautasunaren hastapenetan, bizia betean dabil Ebanjelioa, batera eta bestera, kristauen artean, elkartean fedeari eusten eta haztea ematen. Jesusen jarraitzaileek Ebanjelioa hartzen dute, haren esana egiten dute¹⁸, «Kristoren berri onari dagokion jokabidea izaten»¹⁹ saiatzen dira. Ebanjelioa dute elkarte horiek beren akuilu eta indar. Ebanjelizatzaileak kartzelan sartuko dituzte, baina Jainkoaren Hitza bere lana betetzen ariko da: «honengatik nago neketan, gaizkile bat bezala katez lotua; baina Jainkoaren Hitza ez dago katez lotua»²⁰.

- *Ebanjelioaren indarra askatu*

¹⁷ 1 Pedro 1, 23-25

¹⁸ Ikus Erm 10, 16

¹⁹ Flp 1, 27

²⁰ 2 Tm 2, 9

Ez al da iritsi garaia Ebanjelioa beldurrik gabe jartzeko Elizaren eta kristau elkarten erdi-erdian? Vatikanoko II. Kontzilioak gogorazi digu, gizaldiz gizaldi, Ebanjelioa dela beti Eliza biziarazten duena: «Ebanjelioa da, aldi oro, Elizarentzat, bere bizitza guztiaren oinarria»²¹. Ez dago fede-transmisiorik egiterik Ebanjelioaren presentzia salbatzailea gabe. Oraingo hain garai larrian, Ebanjelioa bilakatu behar da pastoralara berritzeko beharrezkoa dugun aurren-aurreneko tresna²².

Kristau elkarteak, Jesusen Ebanjelioa hartzen duen esparrutzat hartu eta antolatu behar dugu. Esparru apal eta hauskorra une hauetan, baina beste ezer baino lehen, Ebanjelioaren harrera zaintzen duen esparrua. Parrokiak Ebanjelioarekiko esperientzia zuzen eta hurbilaren gainean berreraiki behar ditugu. Sinestedunak, sinesmen gutxiagokoak, sinesmen urrikoak eta baita sinesgabeak ere, denak Ebanjelioaren inguruan elkartu. Krisian dagoen

²¹ *Lumen Gentium*, 20

²² Ikus L. Bressan eta G. Routhier. *Le travail de la Parole*. Brusela, Lumen Vitae, 2011, bi lan garrantzitsu: Luca Bressan, *Une pastorale à l'écoute de la Parole* (57-80) eta Gilles Routhier, *L'Eglise naît de la Parole* (123-138).

parrokiaren gorputza Ebanjelioaren indarraz suspertu eta biziberritu.

Horretarako Ebanjelioa elkarrekin entzuteko gune berri bat sortu beharra dago. Ebanjelioari sinestunengana beraiengana iristeko aukera eman behar zaio. Baldintzak eratu behar dira esperientzia berri bat bizi ahal izateko: Jesusen Ebanjelioa elkarrekin entzun eta partekatzea. Ebanjelioa guztientzat eskuragarri izateko topaketak egin behar dira, haren indarra guztien bizitzan sartu ahal izateko, bakoitzaren arazo, krisi, beldur eta itxaropenak baztertu gabe. Ebanjelioak gure artean agertu behar du.

Aurren-aurreneko eginkizuna, Ebanjelioaren indar berritzailean sinestea da. Fedea bizitzen erakusten du Ebanjelioak, ez derrigortuz baizik erakarriz; kristau bizitza biziartzten du, ez betebeharraren betebeharrez baizik argituz eta kutsatuz. Ebanjelioarekin harremanean Jesusen jarraitzaileen benetako nortasuna berreskuratuko dugu. Sinetsita nago «ebanjelizatze berriaren» sekretua hauxe dela: Ebanjelioarekin harreman zuzen eta gertukoari ekitea.

4. Ebanjelioa, nortasun kristau berriaren hasiera gisa

Zalantzarik gabe, beharrezkoa da Ebanjelioaren indarra askatzea kristau elkarteko jarduera pastoral guztien barruan (Eukaristiaren ospakizuna, homilien predikua, katekesi-bideak, karitate zerbitzuak...)²³. Baina hemen proposatu nahi dudana, pastoral dinamika berri bat da, Ebanjelioaren harrera kristau nortasun berri baten hasiera bihurtzeko. Ez dugu bizi behar iraganetik datorren kristau fedea zaintzen; alderantziz, Ebanjelioa elkarrekin entzuten ikasi behar dugu, Jesu Kristorekiko leialagoa izango den geroa urratu ahal izateko.

- *Elkarrekin hartu Ebanjelioaren indar eraldatzailea*

Vatikanoko II. Kontzilioak honela dio: «idazki guztien artean, are Itun Berrikoetan ere, ebanjelioek lehentasuneko tokia dute, bidezkoa denez, gizaki egindako Hitzaren bizitza eta irakaspenaren lekukotasun nagusia

²³ Ikus *Verbum Domini* sinodo osteko Dei Apostolikoa, Jainkoaren Hitza bizitzan eta Elizaren misioan jorratzen duena.

baitira, gure Salbatzailearena»²⁴. Ebanjelioak ez dira Jesusi buruzko irakaspen akademikoa azaltzen duten liburu didaktikoak. Ez dira katiximak. Ez dira biografiak ere, haren ibilbide historikoaren berri zehatza izan dezagun idatziak. Idazki hauetan jasotzen dena hauxe da: Jesusek eragin zien zirrara aurrena erakarri zituen gizon-emakume haiei eta bere deiari erantzun ziotenei.

Horregatik, ebanjelioak berdinek ez duten lana dira kristautentzat eta ez ditugu gainerako liburu biblikoekin parekatu behar. Ebanjelioetan bada zerbait beste inon aurkituko ez duguna: Jesusen oroimena, hasieran jarraitu zioten gizon eta emakume haiek gogoratu, sinetsi eta maitatu zuten bezalaxe. Jesusekin izandako esperientzia zuzenetik sortutako lau idazki hauek ditugu, haren indar salbatzailearekin lotuko gaituzten bide jatorrena.

Gaur egun, batez ere liturgia eta sakramentuen ospakizunetara emana dago parroketako dinamika. Ia guztia egituratzeko irizpidea, sakramentuen ospakizuna da eta horiek egoki prestatzea. Ezin ote da mendez mende datorren fedea bizitzeko era aberastu, beste dinamika bat

²⁴ *Dei Verbum*, 18. zen

txertatuz? Beste dinamika bat, ebanjelioen pasarteak irakurriz, eliztar-talde txikietan, eta Jainkoaren herriaren parte zabal baten esku hartze bizia ahalbidetuz? Talde txiki hauetan guztietan Ebanjelioa entzutea, ez litzateke izango beste ekintza bat, halako edo bestelako ekintzen artean beste bat; alderantziz, kristau elkartearen fedea biziberritu dezakeen iturria genuke.

Talde hauen ezaugarririk berezi eta berezkoena hauxe da: federa esna aldia, ebanjelioetan kontatutako Jesusekin harremanean aldaketa-esperientzia eginez bizi daitekeela, ez «doktrinamendu» edo «ikasketa-prozesu» bidez. Talde hauetan entzuten dena, ez da katekista baten irakaspena edo apaiz baten predikua, baizik Jesusengan gorpuztutako Jainkoaren Hitza. Bilatzaile-jarreraz irakurri, entzun, gogoetatu eta partekatutako pasarte ebanjelikoak bidea ematen du, nolabait ere, Galilean barrena Jesusekin ibili ziren hasierako gizon-emakume haien jatorrizko esperientzia biziberritzeko²⁵.

²⁵ Fedea esnatzeko Ebanjelioa entzuteak ez gaitu eraman behar «katiximaren generoa» gaindituzat dagoela pentsatzera (J. Ratzinger, *Catéchèse et transmission de la foi*, Perpignan. Éditions Tempora, 2008), baina gogoan izan behar dugu, Joan Paulo II.aren arabera, Eliza Katolikoaren Katiximaren helburua «doktrina katolikoa osotoro aurkeztea dela, norberari ahalbidetzen diolarik Elizak egunerokoan sinesten, bizi, ospatu eta otoizten duena ezagutzea» (*Laetamur magnopere* Idazki Apostolikoa, 1997ko abuztuaren 15a). Fedea esnatzeko beharrezkoa da Jesusen Ebanjelioa hartzea.

Transmisioko pastoralak erraz jotzen du, tradizioak belaunaldiz belaunaldi emandako fede-dukietan jartzera arreta guztia. Ebanjelioarekin topo egiteak, aldiz, elkarrekin «Barruko Irakasleari» entzutea du ardatza, pasarte ebanjelikoetatik mintzo zaiguna eta gure bihotzean fedea pizten duena: «Zuek ez utzi inori zuei “maisua” deitzen, bat bakarra baita zuen maisua, Kristo»²⁶. Hauxe da lehenengo belaunaldi kristauek beren elkarte txikietan bizi zuten esperientzia: «Jainkoaren Hitza lan ederra ari da egiten zuengan, sinesten duzuenengan»²⁷.

- *Jesusek irekitako bidetik sartu*

Gizaldi askoan, kristau elkarteetan betebeharrak edo obligazio gisara proposatu izan da fedea. Eliztarrak edo elizatik aldenduak, makina bat kristau dago sinetsita ideia sinplista eta faltsu bat: Eliza katolikoak gizakiaren berezko autonomia aintzat hartu gabe inposatzen duen sistema erlijiosoa onartzea dela kristau izatea. Hala ere, kristautasunaren hastapenetan, ebanjelioaren berri emailek ez dute eskaintzen sistema erlijiosorik; haiek

²⁶ Mateo 23, 8.10

²⁷ 1 Tesalonikarrei, 2, 13

bide bati jarraitzera gonbidatzen dute, Jesusek eta bere mezuak erakarrita. Lukasek dioenez, bere lana ez da erlijio berri bat azaltzea, baizik «Jaunaren Bidea»²⁸ erakustea.

80.urte aldera, idazki kristau batek, Hebrearrei egindako Gutuna izenez ezaguna, honela dio: «bide berri eta bizia da». Ez herri juduak iraganean ibilitako bide zaharrak bezalakoa. «Jesusek guretzako hasitako» bidea da, eta bide hori «Jesusi begira-begira» egin behar dugu, «fedea hasi eta burutzen duena baita bera»²⁹. Handik urte batzuetara, Joanen ebanjelioak Jesusen ahoan jarriko ditu kristau fede honen muina egokiro laburbiltzen duten hitzak: «Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik»³⁰.

Kristauek Jesusek irekitako bide hori ezagutu ahal dezaten, horretarako daude idatzita ebanjelioak. Hori iradokitzen du Pazko goizaldean, hilobi ondoan, emakumeek jasoko duten mezuak: «Nazaretoko Jesus gurutziltzatuaren bila zabiltzate. Piztua da, ez dago hemen». Jesusen bila ez dago ibiltzerik hildakoen artean.

²⁸ *Apostoluen Eginak* 18, 25-26; 19,9

²⁹ *Hebrearrei*, 10,20; 12,2

³⁰ *Joan* 14, 6

Ez dago hor. Non aurkituko dute bere jarraitzaileek? Galileara itzuli beharra dago: «Zuen aurretik joango da Galileara; han ikusiko duzue»³¹. Hasierara itzuli behar gara. Lehenengo ikasleek egin zuten ibilia egin Jesusen deiari jarraituz, haren mezua entzunez, Jainkoaren erreinuaren zerbitzuko haren biziera ikasiz eta heriotzako eta piztuerako zorian berarekin bat eginez³². Hona ebanjelioak konpartitzeko elkartzen diren talde hauen helburua: Galileara itzultzea. Ebanjelioetako pasarteei esker, Berpiztuak bere Elizan duen izate ikusezin eta isilak giza ezaugarriak eta ahots zehatza hartzen ditu, gaur ere jarrai diezaiogula esanez.

Ebanjelioa konpartitzera konprometitu diren talde hauen bidez, posible da parroketako elkarteetan pastoral-bultzada bat sartzea: kristau fedea Jesusek hauspotutako «bizi-bide» bezala ulertu eta bizitzen lagunduko digun pastoral-bultzada, eta ez sistema erlijioso baten betebeharrak bezala. «Jesusek irekitako bidetik sartzeak» esan nahi du haren jakin mina izatea, haren deiari jarraitzea erabakitzea, nahiak eta ezinak, zalantzak eta galderak

³¹ *Markos* 16, 6-7

³² Honelako zerbait ematen du iradokitzen duela Lukasek, Jesusen jaiotza kontaktzen duenean (2, 1-20) artzainen agindua errepikatzean: «Goazen Belenera. Itzul gaitezen jatorrira. Ikus dezagun askan etzandako haurragan Salbatzailea: Mesias, Jauna».

gainditzea: hori dena bidekoa da, bidean gertatzen da. Bestetik, ez dago ibilaldia behartzerik: norberak bere bidea egin behar du. Eta bidean, garaiak izaten dira: denek ez dute egoera berbera bizi. Krisia eta nora eza ditugun honetan, kristau elkarteak gero eta gehiago izan behar luke ez «ghetto» bat, baizik gune ireki bat, pedagogikoa, bilaketara emana, bereizten eta elkarri laguntzen aritzen dena Jesusen jarraibidean.

- *Kristautasuna bizitzeko eratzat hartu*

Jesusek irekitako bidetik sartzeko, ondo antzeman behar zaio gauza bati: ebanjelioak bihozberritzeko kontaktak dira. Jesu Kristogan fedea ernarazteko idatzi zituzten, ikasleak eta jarraitzaileak eragiteko. Aldaketa-prozesu batean sartzera gonbidatzen dute, nortasuna aldatzera, Jesusi jarraitzera, haren kausarekin bategitera, harekin lan egitera Jainkoaren erreinuaren egitasmoaren alde³³. Bihotza berritzeko jarrera horrekin irakurri, hausnartu, partekatu, hartu eta kutsatu behar dituzte taldeek [ebanjelioak].

³³ Christof Theobald. *Lire les Ecritures dans un contexte de mutation ecclésial*, Jean François Bouthors argitaletxean. *La Bible sans avoir peur*. Paris, Lethielleux, 2005, 263-291.

Ebanjelioetan Jesusengandik ikasten den aurreneko gauza ez da doktrina, bizitzeko era bat baizik: bizitzan egoteko modu bat da, mundua bizi, ulertu eta eraikitzeko era bat; bizitza gizakoiagoa egiteko molde bat. Bizitzeko estilo honen ezaugarririk bereziena zera da: Kristo den Jesusengandik hartzen du arnasa. Harekiko harremana du iturburua. Haren Espiritua kutsatzen zaigu. Haren pentsatzeko era ikasten dugu, haren sentitzeko, maitatzeko, sufritzeko, sortzeko, uste ona izateko eta hiltzeko era. Pixkanaka-pixkanaka haren «ikasle» bihurtuz goaz³⁴.

Jesusen bidetik doazen talde hauen bitartez, fedea ulertu eta bizi-araziko digun dinamika bat txerta daiteke parroko elkartean, eta fedea, batez ere, bizitzeko eratzat hartuko dugu, ez ikusmolde erlijioso jakin baten aitormenez. Ebanjeliotik sortzen den kristau fedea ez dago mugatua doktrina bati heltzera, gehienetan modernitate aurreko kategorietan adierazia; alderantziz, kristau fedea, aurren-aurrenik bizitzeko era gisara

³⁴ Christof Theobald. *Le christianisme comme style. Une manière de faire la théologie en postmodernité*. Paris, Edit. du Cerf, 2008, I, 16-177.

esperimentatzen da, kultura eta garai guztietan gauzatzeko modukoa: Jainkoaren Semearen bizitzeko era, gizaki egina gu salbatzeko.

Kontua ez da Elizak, hogeii mendetan, mendebaldeko kulturaren garatu duen bere erlijio-ikuspegiaren eduki erlijiosoa gutxiatea; kontua da egindakoa kristau fedearen oinarri-oinarrian eta muinmuinean txertatzea, batik bat bizitzea, hau da, Jesusen moldeko bizitza, izaera, jokaera eta bizieraren barruan. Jesusen urratsen atzetik goazenean aitortzen dugu hura Kristo eta Jaun.

Hala bihurtzen da Ebanjelioa kristau elkartearen indar ahaltzuena, beratu eraldatzeko. Ebanjelioek zer pentsatua ematen dute, akuilu gertatzen zaizkigu, gure bizitza Jesusen argitan birbegira arazten digute, eta orain ere haren bizitzeko era gaurkotzeko kemena ematen digute, Jainkoaren erreinuari gure artean bide berriak irekiz eta eliz elkartearen bizitza emeki-emeki haren Espiritutik berpiztuz.

- *Elkarrekin eliz nortasun berri batera berpiztu*

Jesusen Ebanjelioarekin harreman zuzen eta hurbilari esker, hazi egingo dira adiskidetasun- eta batasun-loturak, Berri Ona konpartitzera elkartzen direnen artean. Elkartzen diren bakoitzean, haren izenean elkartzen dira. Berpiztuak deitzen ditu eta hura dute buru. Jesusek hitzemandakotik bizi dira: «Nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean»³⁵. Talde hauek ez dute aitajaunik. Ez dira inongo mugimendutakoak ez erakundetakoak. Jesusenak dira eta Jesusen Elizarenak. Haren Espirituak kutsatuta eta Ebanjelioak erakarrira hazten eta ugaltzen dira.

Ebanjelioa, senidetasunezko batasun- eta askatasun-ingurune bat sortuz joaten da. Inor ez dago inoren gainetik. Inor ez da besteak baino nagusiago. Denek elkar entzuten dute Jesusi elkarrekin entzuteko. Guztiak anai-arrebak dira, eta Kristo Maisu eta Jaun bakarra. Gizonek eta emakumeek berdinen arteko lagunartean ikasten dute elkarrekin bizitzen. Galilean Jesusek deitutako lehenengo taldean bezala, hemen ere ikasleek, nola gizonak hala

³⁵ *Mateo* 18,20

emakumeak, elkarri entzuten diote, elkarrekin hitz egiten dute eta Jesusen esperientzia norberak bere egoeratik eta sentiberatasunetik partekatzen du. Deskubrituz doaz Kristogan ez dagoela gizonik eta emakumerik, izan ere guztiok garelako bat Kristo Jesusengan³⁶.

Talde hauetan, askatasunez zabaltzen da Jesusen Ebanjelioa eta horrek elkarrekiko harrera, laguntasuna, adeitasuna eta bata bestearekiko ardurazko harreman ebanjelikoak sortzen ditu. Harrigarria da Tartsoko Pauloren idazkietatik sumatzen den giroa. Ebanjeliotik jaiotako elkarte txiki haietan badira tira-birak eta zailtasunak, baina Jesusen estiloaren seilua bilatzen dute elkartean bizitzeko: «Egiozue harrera ona elkarri, Kristok zuei harrera ona egin zizuen bezala»³⁷; «maita ezazue elkar bihotzez»³⁸; «poztu pozez daudenekin; egin negar negarrez daudenekin»³⁹; «bizi zaitezte elkar ongi hartuz; ez izan handinahi, apalen mailako baizik; ez jo zeuen buruak jakintsutzat»⁴⁰; «izan eraman oneko elkarrekin eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka zerbait balu. Jaunak

³⁶ Galaziarrei 3,28

³⁷ Erromatarrei 15,7

³⁸ Erromatarrei 12,10

³⁹ Erromatarrei 12,15

⁴⁰ Erromatarrei 12,16

barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri»⁴¹;
 «Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan»⁴²;
 «bizi bedi oparo zuengan Kristoren mezua»⁴³; «agur
 ezazue elkar musu santuaz»⁴⁴.

Hutsegite larria litzateke Ebanjelioaren inguruan lagun-talde itxi eta bakandu bat sortzea, parroki-elkartetik eta Elizbarrutitik aldendua. Bere interesak bakarrik gogoan dituen taldea, bere arazoak bakarrik sentitzen dituen eta bere gauzei buruz besterik hitz egiten ez duena. Talde txikitan bizi ziren Jesusen jarraitzaile ugari ziren hasieran, elkarrekin harreman, truke eta zerbitzu asko zeuzkaten, eta Paulok berak, irudi gihartsu eta bizi bat darabil talde horiei buruz mintzatzeko: «asko garen arren, Kristorekin elkaturik gorputz bat egiten dugu eta guztiok bata bestearen atal gara»⁴⁵.

Talde hauetako kideak beren parroketakoak eta Elizbarrutikoak dira. Hor elkartzen dira Jesusen beste jarraitzaileekin, eta horiekin batera bizi dute Eliza

⁴¹ *Kolosarrei* 3,13

⁴² *Kolosarrei* 3,15

⁴³ *Kolosarrei* 3,16

⁴⁴ *Erromatarrei* 16,16

⁴⁵ *Erromatarrei* 12,5

unibertsalarekiko batasun-esperientzia zabalagoa. Talde hauek ez dira sortzen beren barruan itxita bizitzeko. Jainkoaren erreinuan bizi eta hazten dira eta Ebanjelioaren «legami ezkutua» izaten saiatzen dira gizartean eta Elizan. Are zehatzago, une larri hauetan, parroketako elkarteetan Jesusenganako bihotz berritzea indartzen laguntzen ahalegintzen dira. Hauxe izan daiteke beren zerbitzu apala.

Talde hauek ez dira sortzen altxamendurik eragiteko, enfrentamendurik edo des-eraikuntzarik bultzatzeko. Ez da hori Elizak behar duena bere Jaunarekiko leialtasuna handitzeko. Talde hauek beren bihozberritzearen alde lan egiten dute, beste ezer baino gehiago. Beren burua nabarmendu nahi izan gabe, enfrentamendu-asmorik gabe, eta Elizan Ebanjelioaren aurka dagoenari, Ebanjelioaren aurkako jarrerekin erantzuten ibili gabe. Baina ez dira talde pasiboak, besoak tolestu eta gertatzen ari denari etsita begira geratzen direnak. Jesusen Espirituak gero eta askatasun handiagoz eta sormen ebanjeliko biziagoz aritzera bultzatzen ditu.

Eliza ez da amaitutako errealitate bat, behin betiko burutua eta guk gure garaietara egokitu beharrekoa. Erakunde bizia da, beti sortzen ari dena. Kristoren Gorputz gisa, Jesus berpiztuaren Espiritutik eta Ebanjelioaren indarretik sortu eta sortu ari da eten gabe. Gure eginkizuna, gaur egun, ez da Elizaren molde bati eta kristautasun estilo bati leial izatea, beste garai batzuetan beste gizaldi batzuetarako pentsatua eta garatua. Ez gaitu arduratu behar iragana errepikatzeak. Gure ardura bestelakoa izan behar da: Jesu Kristo gure artean dela leialki gauzatzeko gai diren Eliza eta kristau elkarteak ahalbidetu behar ditugu eta gure garaiko gizartean Jainkoaren erreinuaren egitasmoa eguneratzeko gauza direnak.

Gure lana hauxe da: eliz-sorrera berri baten hasiera bezala bizitzea Ebanjelioa. Hasten ari garela sinetsita bizitzea Jesu Kristoganako fedea. Gure parroki-elkarteetako fedea bere onera ekarriz bizitzea. Jesusen Ebanjelioan sustraitzea eta horrela, kristau fedea pentsatzeko, bizitzeko, ospatzeko eta kutsatzeko era gizakoiagoak asmatzea eta garatzea. Iraganaren «imitazio»

edo «klonazio» hutsa den kristautasunik ez du sekula eragiten Ebanjelioaren indar sortzaileak. Ebanjeliotik, begitarte gizakoiagoko Eliza jaioko da, bihotz errukitsuagoa duena, Eliza profetikoagoa eta elkarrizketa zaleagoa eta elkarrizketatzaileagoa, azkenekoekin estuago bat egina eta zerbitzariagoa.

Horregatik, 29. Gogoeta Aste honetan, Loiolan, Euskal Herrian, etorkizunerantz goaz, Hebrearrei egindako Gutuneko deiari erantzunez, «begiak geure fedearen iturburu eta betetzaile dugun Jesusengan jarrita»⁴⁶.

⁴⁶ Hebrearrei 12,2